

Aipatu bezala, gure negozioa fisikoki zein online izango da, eta beraz, gure enpresa ikustarazi behar dugu ahalik eta bezero gehien lortu ahal izateko. Hori gauzatzeko sare sozialak erabiliko ditugu. Bertako influencerrekin komunikatuko gara gure produktuak bidaliz beraiek ikusio ahal izateko, eta ondoren, beraien balorazioa publikoki azaltzeko. Horrez gain, Instagram aplikazioari ordainduko diogu insta-history-etan gure marka ikustarazteko erabiltzaieak haiek ikuskatzen ari diren bitartean.

Gure bezeroak mantendu ahal izateko funtsezkoa da gure bezeroen artean harreman ona izatea. Bezero horiek erakartzeko gure produktuak erakutsiko dizkiegu sare sozial, web horri zein fisikoki, beraiek ikusteko ez ditugula kimikoak erabiltzen, baizik eta produktu naturalak eskaintzen ditugula. Haien bitartez bigarren mailako efektuak saihestuko ditugu. Bestalde, bezero horiek mantentzeko konfiantza ere eskeniko diegu tratu ona emanaz. Hori oinarri bezala edukita terapiakoen eta bezeroen artean konfiantzazko giro bat sortu nahi dugu horrela datozten bezero berriak eroso sentiaraztea egingo ditugu. Lehen aipatu bezala bezero horiek erakartzeko gure produktuak erakusteaz gain, kanpotik gure terapia leku erakargarri eta eroso bat egingo dugu. Horren bitartez bezeroak gure lokalean fijatzea lortuko dugu. Bezeroek gure lokala ikustarazteko leku jendetxu batean kokatuko dugu eta ez leku batean ez dena inor pasatzen.